

IKUSKA 2024

Pasaia Badiako Film Laburren Nazioarteko XXVI. Erakustaldia
XXVI Muestra Internacional de Cortometraje de la Bahía de Pasaia
XXVI Pasaia Bay International Short Film Festival

OINARRIAK

1.- IKUSKA Pasaia Badiako Film Laburren Nazioarteko 26. Erakustaldia 2024ko azaroan egingo da Pasaian (Gipuzkoa).

2.- Edozein pertsonak parte har dezake, berdin da nongoa den (antolakuntzari lotutakoak izan ezik), edota pertsona juridikoek legeaz eraturik. Nolanahi ere, 18 urtetik gora badituzte. IKUSKAK ez die inskripzio tasarik kobratuko parte hartzen duten film laburrei.

3. - Aurkezten diren filmak 2023ko urtarrilaren 1etik hona egindakoak izan behar dute, eta iraupenaren aldetik gehienez 20 minutu iraun behar dute.

4.- Gaia eta generoa libreak izango dira. Filmak mutuak nahiz soinuak izan daitezke.

5.- Elkarrizketari dagokienez, lanak edozein hizkuntzatan aurkeztu ahalko dira, honako puntu hauek kontuan harturik:

a) Inskribatze eta aurretiazko aukeraketa fasean, elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz ez badaude, azpiztituluak izan beharko dituzte euskaraz edo gaztelaniaz, edo bestela ingelesez edo frantsesez.

b) Behin betiko aukeraketa egiteko orduan, film laburra euskarazkoa edo gaztelaniazkoa ez balitz, aukeratuak izateko AZPITITULURIK GABEKO kopia bat aurkeztu beharko da, eta elkarrizketen zerrenda bat gaztelaniaz edo ingelesez azpiztituluak ezartzeko.

6.- Inskripzioak 2024ko abuztuaren 31 arte bakarrik jasoko dira (egun hori barne).

7.- Film laburrak online bidezko plataformak erabiliz bidaliko dira, www.ikuska.eus webetik, eta plataformek berek eskaintzen dituzten inskripzio fitxak beteta. Parte-hartzaileen erantzukizuna da aipatutako online plataformak erabilia parte-hartzeak zer gastu dakarren jakitea, eta gastu horiek beren gain hartzea.

Jaialdiaren webean dagoen inprimakia bete eta bidalita ere parte har daiteke. Esteka bat erantsiko da film laburra bistaratzeko eta/edo Vimeo (ahal bada), Wetransfer, Drive, Dropbox eta abarretik deskargatzeko.


8.- Erakusketako hautaketa-taldeak inskribatutako lanen aukeraketa egingo du, Lehiaketako Sail Ofizialerako eta Sail Paraleloetarako aukeratutako film laburrak zehazteko. Sekzio paraleloei dagokienez, Erakustaldiaren antolakuntzak hautatuei parte hartzeko eskatuko die, eta haiek aukera dute ezezkoa emateko gonbidapenari eta baimenik ez emateko emanaldirako. Jaialdiak inskribatu diren guztiei jakinaraziko die Hautaketa Batzordearen erabakia. Era berean hautatuei partaidetzaren xehetasunen berri emango die: emanaldiaren data eta ordua, eta beharrezkoa izanez gero, kalitateko kopia bat eskatuko da, etab.

9.- Euskarazko film labur onenaren MINTZAGUN saria hainbat saio berezitan parte hartzen duten ikusleen botoekin emango da. Ikusle horiek Gipuzkoako Oarsoaldeko Euskaltegietako ikasleak izango dira.

10.- Sekzio Ofizialeko Epaimahaiko kideak antolatzaileek izendatuko dituzte. Eta epaimahai horrek erabakiko du zein diren sari irabazleak. Gazteen Saria antolakuntzak izendatuko duen gazteen epaimahai batek emango du, eta Sekzio Ofizialeko film labur bat aukeratuko du. Bi kasuetan erabakiak apelaezinak izango dira, eta Erakustaldiaren amaiera-ekitaldian emango dira jakitera. Epaimahaiek sariak eman gabe utz ditzakete.

11.- Saritutako lanek trofeoa eta diru-saria jasoko dituzte. Sarien zenbatekoak hauek dira:

- IKUSKA 2024ko film labur onenari: 1.200 €



IKUSKA 2024

Pasaia Badiako Film Laburren Nazioarteko XXVI. Erakustaldia
XXVI Muestra Internacional de Cortometraje de la Bahía de Pasaia
XXVI Pasaia Bay International Short Film Festival

- Zuzendari onenari: 600 €.
- Gizonezko Antzezlerik onenari: 500 €.
- Emakumezko Antzezlerik onenari: 500 €
- Epaimahaiaren Sari Berezia: 500 €
- Ikusleen Saria: 500 €.
- Gazteen Saria: 500 €.
- MINTZAGUN Saria 600 €

12.- Sariak 2024ko azaroaren 16an egingo den Amaiera Bilkuran banatuko zaizkie, ahal dela, sariak jasotzera joaten diren film labor irabazleen zuzendari eta/edo ekoizleei. Ezin bada bertan egon, beraiek izendatutako pertsonari edo pertsonari emango zaizkie.

13.- Film labor onenari emango zaion diru-saria, Ikusleen Saria, Gazteen Saria eta Mintzagun Saria, film laborraren inskripzio orrian ageri den pertsona fisikoari edo enpresa juridikoari emango zaizkio. Epaimahaiaren sari bereziarekin ere halaxe egingo da, baldin eta sari hori pertsona bati eman beharrean, film labor bati ematen bazaio. Antolakuntzak bere gain hartuko ditu (ahal duen neurrian) Amaierako Ekitaldira joaten diren sarituen garraio eta ostatu gastuak. Sari guztiak erakustaldia bukatu ondoren ordainduko dira, banku-transferentzien bitartez. Sariei indarreko legediak eskatzen dituen zerga-atxikipeak ezarriko zaizkie.

14.- IKUSKAren antolakuntzak zainduko du emanaldietarako kopiak aukerakoenak izan daitezen, ahal den kalitate handienekoak. Hautatzen diren lanen egileek edota ekoizleek IKUSKA 2024ko antolatzaileei baimena emango diete film zati batzuk hedabideetan agertzeko, helburu komertzialik gabe. Gehienez ere minutu bateko zatiak izango dira, edo film laborrak duen iraupenaren %10ekoak. Era berean, inskripzio fitxan ageri diren datu tekniko eta artistikoak (titulua, iraupena, zuzendaria...) erakustaldiari buruzko argitalpenetan sartuko dira. Hautaketarako bidaltzen diren kopiak erakustaldiaren artxiboan gordeko dira.

15.- Hautatutako film laborrak erakustalditik kanpo proiektatu ahalgo dira, film horien sustapenerako emanaldietan edota herriko elkarteekin batera antolatzen diren jardueretan: gazteria, emakumea, hezkuntza eta beste hainbat arloei lotutako jardueretan. Emanaldi horiek doakoak izango dira, eta dirua irabazteko asmorik gabeak, eta horretarako emanaldi-eskubideen jabe baimena eskatuko zaie, eta haiek aukera izango dute emanaldirako baimena ukatzeko.

16.- Film laborra aurkezten duen pertsonak, enpresak, baltzuak edo bestek, ziur egon behar du horretarako baimena duela, eta IKUSKA 2024an parte hartzeak ez dituela kaltetzen hirugarrenen eskubideak (babesleak eta abar). Gainera, antolatzaileak sor litezkeen lege erantzukizunetatik salbuetsiko dituzte.

17.- Antolatzaileek oinarri hauek aldatzeko, edozein gorabehera konpontzeko, edo lehiaketa bertan behera uzteko eskubidea dute. Hala erabakiz gero, parte-hartzaileei horren berri emango zaie.

18.- Film laborren Pasaia Badiako Film Laburren Nazioarteko 26. Erakustaldi honetan izena emateak oinarri hauek guztiz onartzen direla esan nahi du.